

'Bularretik mintzora', haurrak eta liburuak elkartzeko egitasmoa

Ekimen hau gauzatu den herrietan %50 haur gehiago doa liburutegira. Hamabi herritara iritsi da Bularretik Mintzora egitasmoa, berrogei ikastetxe eta bost mila haurrengana

Haurren artean irakurzaletasuna bultzatzeko sortu zen Galtzagorri elkarteak, eta 2009az geroztik Bularretik Mintzora egitasmoa ari da garatzen hamabi herritan. Lehen fruituak nabaritzen hasi dira: 2009tik gaur arte, liburutegira joateko ohitura asko areagotu da herri horietan, ia %50 haur gehiago joaten baita orain.

Ebaluaketa egin du Galtzagorrik. Nahi izan du jakin zer emaitza izan dituen Bularretik Mintzorak herri horietan, eta horretarako gurasoengana jo du. Sei herritako gurasoei eskatu zaie iritzia. 2009an lehen aldiz herri horietako 3 urteko gurasoen artean galdekizunak banatu eta jaso zirenean, zera aztertu nahi zen: herri horietan zein ziren irakurketarekiko zeuden ohiturak eta jarrerak. Abiapuntua finkatu zen, beraz. Hiru ikasturte igaro ostean, alegia, haur horiek 6 urte egin dituztenean, berriz ere galdekizunak erantzuteko eskatu zaie guraso haiei.

Amurrio, Ermua, Iurreta, Oñati, Tolosa eta Markinako guraso batzuek erantzun dituzte Galtzagorrikoen galderak. Hauek dira emaitzak: oso maiz (asteen behin baino gehiago) liburutegietara joaten diren familien ehunekoa hobetu da (%7 gehiago); herri horietako liburutegietan %41 ipuin gehiago mailegatzeko dira orain; guraso gehiago dira orain (%34 gehiago, hain zuzen) herri horietan haur kantak haurrari kantatzen dizkiotenak; gurasoak ohitzen ari dira haurrei edozein momentutan ipuina kontatzera, eta ez lo egin aurretik soilik (%10 gehiago dira edozein unetan ipuina kontatzen dietenak); haur literaturarekiko ezagutza maila asko hobetu da.

Oraingo ebaluaketa hau egin ahal izateko, lanak 2009an hasi ziren. Orduan, 3 urteko gurasoen artean banatu ziren galdekizunak. Eta orain, hiru urte pasata, galdera berberak erantzuteko eskatu zaie guraso haiei.

Galtzagorri Elkarteak Bularretik Mintzora egitasmoa 2008an abiatu zuen EAEko 5 herritan, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren babesarekin. 2012an, guztira, 12 herri dira Bularretik Mintzoran daudenak: Amurrio, Aramaio, Arrasate, Ermua, Laudio, Legazpi, Markina, Iurreta, Oñati, Tolosa, Urkabustaiz eta Donostia. Beraz, gaur egun, 300 irakasle, 40 ikastetxe eta 5.000 haurrengana iristen ari da egitasmoa.

'Bularretik Mintzora' izenburuko liburua ere badago salgai. CD-liburua 0 eta 6 urte bitarteko haur txikien guraso eta hezitzaileei bideratuta dago, eta bi helburu nagusi ditu: literatur tradizioaren galerari aurre egin, sehaska kantak, esku jolasak, eta abar bilduz; eta haurren irakurzaletasuna sustatu txiki-txikitatik, horretarako hezitzaile eta gurasoentzako tresnak eskainiz.

CD-liburua Itziar Zubizarretak zuzendu du, Elena Odriozolak ilustratu eta Aurélio Edler Copések musikatu. CDaren grabazioa Eresbilen egin zen Jon Miner teknikariarekin. Bertan, Miren Agur Meabe, Juan Kruz Igerabide, Pello Añorga, Lourdes Etxebarria eta Itziar Zubizarretaren ahotsen bitartez, sehaska kantak, magaleko jolasak, esku jolasak eta hitz jolasak grabatu dira. Horien guztien letrak eta erabilerarako oharrak biltzen ditu, gainera, CDarekin batera doan liburuak.

Pello Añorgaren aholkuak

Ekimenaren adarretako bat Pello Añorgaren hitzaldiak dira. Oiar-tzungo idazle hau herririk herri jardun izan da, haur txikien gurasoei erakusten beren seme-alabekin nola egin behar duen ipuin-kontaketa.

"Errutina eta ohitura finko ba-tzuk sortu beharra dago. Egunero komeni da haur txikiei ipuina kontatzea", esan digu idazleak. Espazioak garrantzi handia du, eta nolabaiteko isolamendua lortu behar da. Edozein tokitan ezin da egin. "Gaur egun gauza asko daude inguruan, eta dispertsiorako ariskua izaten da. Ipuina kontatu behar duenak eta ipuina entzun behar duenak zentratuta egon behar dute, garai batean suaren inguruan jendea zentratuta egoten zen bezala-tsu. Ez da bakarrik liburua erostea edota liburutegitik hartzea, liburua partekatu egin behar da, zerbait dinamikoa da, eta hortik harreman afektiboa sortzen da gainera".

Añorgak gonbitea egin nahi du: "Liburutegietara jende gutxi joaten da, eta guraso berriak ere, asko ez dira joaten. Zoaz, eta ikusiko duzu zenbat gauza dauden haur txikien-tzako, hor daude 'Bularretik Min-tzora'-ko motxilak ere".

Maletak

Ekimenaren barruan, Galtzagorri elkarteak maleta batzuk banatu ditu liburutegien artean. Liburuz betetako maletak dira, eta liburu horiek etxera eramán ditzakete gurasoek egun batzuetarako.

Batetik, 0 eta 3 urte bitartekoen-tzako maletak daude. Horrelakoetan, liburu gehienek autoreak atzerrikoak dira. Adibidez, obra dezente daude Jo Lodge idazlearenak, protagonista Kroko izeneko krokodiloa dutenak; baita ere, Cyril Hahn-en lanak, Bubu haur txikiaren abenturei buruzkoak. Autore euskaldunei dagokienez, Juan Kruz Igerabideren liburuak badaude tartean, Jonas mutikoaren sailekoak, batik bat.

Hain zuzen ere, Juan Kruz Igerabideren esamoldea da 'Bularretik mintzora'. Haurrentzako poesian gehien sakondu duten autoreetako bat da Adunako idazle hau.

3 eta 6 urteko haurrentzako maletetan autore euskaldunen liburu gehiago daude; besteak beste, Juan Kruz Igerabide, Joxean Ormazabal, Xabier Olaso eta Miren Agur Meaberenak.